

ERREGE BESPERA GABEAN

(Aurtengo indar-neurtzeetan aldeera irabazia.)

I

Juan Pellok deitu diyo bere andreari sukaldera, ta jai egunetako chamarra, noizbait beltza izana, jasten zuen bitartean, ara nola kontatu ziyon, zer egiteko asmoetan zan.

—¿Ondo deizkiyozu Jošepa, gure Erramuncho chikiya, gašo arkitzen dalarik, nola dagon tristeia Erregien zai, ta bigar eguna argitzean, jaun oyek izpirik ez oroitzea gizagašo artaz? ¿Bigar goizean zapatachoak eskatzean, izango dezu biyotza, ezer eraman gabe, negarrez urtzen ikusteko?..... ¡nik ere ez!..... eta orrenchengatik, Martiñ lengusubaren echera nua, bost bat pezeta eskatzero, bigar goizean esnatzen danerako, gošua eta iru edo lau errialeko eskopeta gorri bat eramateko. Nik badakit Jošepa, lengusuba suarriya baño gogorragua dala. Badaki berak ere, igeltzeritzan ezdegula lanik, amar amabi egun abetan. Kontatuko diyot gure *pobreza* guziya botiketan nola joan zargun: bost pezeta gatik ezdala izango pobriago, zeren polcha, nik eta beste askok baña beruago daukan.

Ukatuko balira, eskatuko diyot bere amaren izenean, zeruan arki dedilla: ezetz esango baliket, eskatuko dizkat bere semea gatik, ezditezela beñere arkitu gurea bezela, ta añ gogor egongo balitzake..... orduan..... orduan eskatuko dizkat..... belauniko ta negarrez. Badakigu Martiñ gizon sekena ta gogorra dala, baña ezta altzaiduba.

Itz oek atera ta lanazko gauza illun bat lepuan bilduaz, irten zan aukaldetik. Bere emazteak, chiminiyan kakotik chinchilik zegüen krisillua artu, ta jarriyaz belarriga atean zerbait nabaitzen ote zuen, joan zan gelara ta ipiñiyaz krisillua iltzean, arrimatu zan chit kontuz eta oñ

puntetan, piñuzko seaska šarrera, non bere biyotzeko Erramuncho lo zegoan momentu artan.—¡Egizu lo, egiñ, nere pocho maitea!

Urre zar koloreko bere ille eder ugariya, arkitzen zan, kopeta zabal guziya jaten ziyola; begiyak ichiyak zeuzkalerik, ikusten ziran ondaturak zeudela, ubeltasunak preso artubak baleude bezela: masallak gašo arkitzen danen kolore su-arrosatua ta espainchoak, ezereen kolore gabe, pegatu moduan, ortz polit ayen oyea. Amak bere amoriyozko begirunea egiñ ondorean, eseri zan burualdean, jarriyaz galtzeta egiten gerartuaz denbora.

Krisilluko argi churkeria, mugitzen zan, norbaitek aize emango baliyo bezela arincho, ta bere mugiren meriyo, gela triste arek ziruriyen, akelarreko irudindarren bat: bada ango gauzaren itzalak, iriztatuz pareta zuriyetan, ematen zuten guzizko ikara.

Bere eseri alkitik aditzen zituen andre onak, eskallera buruko mutill chikiyen Errege kantak, beren jolasak eta far-algarak, ataritik pasatzen zirala musika jotzalle ta kantariyak, nastuaz, zurriyola aldetik sartzen zan aize bunbada ikarati gogorrakin, astinduaz patiña aldeko leyatilla.

Ontan esnatu zan Erramuncho, mugituaz maindire tartean: zabaldu zituen begiyak eta aditu zuenean aizien dunbota, diyo chit boza aulean:

—¡Amacho! ¿Erregiak egiten aldute ots ori?

—Ez, maitia, ez—diyo amak—. Aizia da ene, baña Erregiak aurki dira erriyan.

—¿Eta gogoratzen aldira ume guziyaz?

—¡Bai, maite, bai!

—¿Nitzaz ere bai, amacho?

—¡Esango nuke!..... Ikusiko dezu nola zapatachoak beteko dizkituten, zergatik aitacho esatera joan da, pasa ditezela aguro gure kaltetik.

Isildu zan Erramuncho, ta bere ama jarri zan Jaunari eskatzen, bigun zezala lengusubaren biyotza, eman zitzan bost pezeta tristeak, egiteko aur mintsuaren zoriona: goizean goiz, joateko gošotegira, gošuak eroštera ta gero chanchetako eskopeta chikiyen billa.

—¡Jauna!—ziyon ama larrituak bere gisa—¡Guri bigaldu gaituzun bezela neke bearra, zabal zazu bestietara zure borondate santua.

VICTORIANO IRAOLA

(Amaituko da)